

# Prensa oharra

## Nota de prensa



KONPONDU & BIGARREN ESKUA  
DONOSTIAN

### UDALAK BERRIZ BERRI KANPAINA MARTXAN JARRI DU, KONTSUMO ARDURATSUA SUSTATZEKO

Martxoaren 15ean, Kontsumitzaileen Eskubideen eta Kontsumo Arduratsuen Munduko Eguna izango da. Hori dela eta, Donostiako Udalak Berriz berri kanpaina martxan jarri du, herritarrak objektuak berrerabiltzeari buruz sentsibilizatzeko.

Ekologiako zinegotzi Marisol Garmendiak gogora ekarri du “egunerokoan darabiltzagun produktu eta elementuetako askok zakarrontzian amaitzen dutela, akats txikiren bat dutelako edo zertxobait hondatu direlako. Egoera hori aldatu behar dugu, eta objektu horiei beste bizitza bat eman, berrerabili. Zenbaitetan, konponketa txiki bat aski da: moldaketa bat egitea ustez ezertarako balio ez zuen bizikleta batean; adabaki bat jantzi batean, alferrikako gastu bat ez egiteko; eta, halaber, beharrik gabe sortzen diren hondakinak murriztea. Kanpainaren xedea egungo kontsumo ereduan —ekonomia zirkularrean— aldaketak sustatzea da. Ohitura berri horiek laguntza handia dira gure ongizaterako eta poltsikorako, neurritz kanpoko kontsumoa saihesten baita; eta, jakina, garrantzitsuak dira planetaren jasagarritasunari begira ere”.

# Prentsa oharra

## Nota de prensa

**Berriz berri** kanpainaren bidez, hiriko konponketagintzari ikusgaitasuna eman nahi zaio, eta berrerabiltzea errazten duten aukerak bultzatu. Kanpaina Donostiako Udaleko Osasuna eta Ingurumen Sailak eta Cristina Enea Fundazioak abiarazi dute.

Kanpainaren jomuga herritarren hainbat sektore dira, eta jarduera egitarau baten bitartez gauzatuko da, 2023an zehar.

- **#Berrizberri bilatzailea.** Elkarlana bideratu da Saretuzekin (Kontsumo Eraldatzailearen Donostiako Sarea). Onlineko bilatzaile bat da (#Berrizberri); hartan, konponketa zerbitzuak eta bigarren eskuko produktuen salmenta eskaintzen duten Donostiako saltokiak bilatu daitezke. Era horretan, produktu askoren bizitza erabilgarria luza daiteke: jantziak, oinetakoak, etxetresna elektriko handiak eta txikiak, irudi eta soinu ekipoak, altzariak, etab.
- **Berriz berri** kanpainarekin, konponketak egitea eta bigarren eskuko produktuak erostea sustatuko da. Horretarako, opari bonuak zozketatuko dira #Berrizberri zerbitzua darabilten guztien artean. Bonu horiek sareari atxikitako tokiko saltokietan trukatu ahal izango dira.

### Gazteentzako sentsibilizazio jarduerak

Gazteen artean, gero eta nabariagoa da planeta babesteko beharra. Hala eta guztiz ere, kontsumo eredia aldatzea gizartearentzako erronka bat da. Lehen urratsa gure erosteko moduaren ondorioak onartzea eta produktuak erabiltzea izan daiteke, eta, horregatik, antzezlan bat programatu da hiriko gaztelekuen sarea osatzen duten ekipamenduetan; horren bidez, jorratzen ari garen gaiari hurbildu nahi zaio. (Apirilaren 28an, Martuteneko gaztelekuan, 18:00etan; eta maiatzaren 5ean, Intxaurrendoko gaztelekuan, 18:30etik aurrera).

### Trebakuntza tailerren programa

Kontsumo ondasun jakin batzuk konpontzeko, dagokion sektoreko profesionalengana jo behar da. Beste zeregin batzuk, ordea, etxean bertan egin daitezke, errazak direlako. Konponketa edo mantentze-lan txikiak dira horrelakoak, produktuen bizitza erabilgarria luzatzeko lagungarri direnak; halakoetan, oinarrizko ezagutzak besterik ez da behar. Hala, trebakuntza jasotzeko interesa dutenek hainbat tailerretan izango dute aukera, hiriko elkarte batzuekin antolatu dira eta. Zehazki, 2023an zehar, bizikletak konpondu eta mantentze-lanak egiteko tailerrak eskainiko dira, baita jantzigintzarekin eta ehungintzarekin lotutako tailerrak ere.

# Prentsa oharra

## Nota de prensa

- **Bizikletaren bitzta erabilgarria luzatzeko tailerrak.** Kalapie elkararekin elkarlanean, bizikletak zaindu eta mantentze-lanak egiteko tailerrak antolatuko dira hainbat auzotan. Mekanikako oinarrizko ezagutzak eskainiko dira, bizikletak doitzeko, matxura txikiak konpontzeko eta funtsezko mantentze-lanak egiteko. Era horretan, ahalik eta denbora gehien erabili ahalko dira bizikletak. Orobat, informazioa emango da bigarren eskuko bizikleta bat erostean aintzakotzat hartu behar diren ezaugarriei buruz, zer baldintzatan dagoen aztertu ahal izateko.

Tailerrak maiatzaren 10ean egingo dira, 18:30etik aurrera, Altzako Casares kultur etxean; ekainaren 2an, Loiolakoan; eta ekainaren 7an, Amarako Ernest Lluch kultur etxean.

- **Joskintza tailerrak, behar guztietarako.** Horrelako tailerrekin, herritarrei tresnak eman nahi zaizkie konponketa eta aldaketa txikiak egiteko jantzietan: urratuak konpondu, azpildurak josi, etab. Halatan, jantzien bitzta erabilgarria luza daiteke. Oinarrizko bost tailer egingo dira, auzoz auzo: Oinarrizko joskintza tailerra (botoiak josi, urratuak konpondu eta azpildurak egin), jantziak apaintzeko tailerra (sormenezko ideiak, jantziak pertsonalizatu eta ukitu berria emateko), jantziak egokitzeko tailerra (behealdeak luzatu, gerrialdea estutu eta jantziei zentimetroak gehitu, gorpuzkeraren aldaketei egokitzeko) eta behar berezietarako egokitze tailerra (aukera errazak eta erabilgarriak, behar berezirik dutenei egunerokoan jantzen laguntzeko).

Tailerrak 18:00etan egingo dira, hemen: Altzako Casares kultur etxean, maiatzaren 31n; Intxaurrendoko kultur etxean, ekainaren 12an; ekainaren 15ean, Loiolakoan; eta ekainaren 20an, Groseko Okendo kultur etxean.

Bizikleten tailerretan eta joskintza tailerretan izena emateko, Cristina Enearen webgunera jo behar da: [www.cristinaenea.eus](http://www.cristinaenea.eus).